

Kazetari txartela adierazpen askatasunaren aurka

Gure lurralde bedeinkatu honetan kazetari gisa lan egiteko ere karneta behar da. Unibertsitate titulu eta guzti, gainera. Eta askori ebidente iruditzen zaio, eta horiek harritu egiten dira kazetaritzaren eta tituluaren lotura hori auzitan jarriz gero.

Luis María Ansón jaunari ere ebidente iruditzen zaio karnetaren premia. Bestela, enpresen edo, okerrago dena, sindikatuen pentzura geldituko omen litzateke kazetaritza. Ansón dixit.

(Ansón hau, gure zoritxarrerako, ez da edozein. Espainiako «Federación de Asociaciones de Prensa» delakoaren lehendakari da, eta EFE berri-agentziaren Administrazio-Kontseilukoa).

Ansón, ordea, bakarrik gelditu da eritzi honetan IPIk (Nazioarteko Prentsa Institutuak) Madrilen, maiatzaren 10ean hasita ospatu duen 31. Biltzarrean. Ondoko eritzi honetan bat etorri bait da Biltzar osoa (Ansón salbu, noski): Estatuari zein bestelako instantzia bati kazetal lanbidearen egikaritzea errekonozitzeak zera esan nahi du, alegia, kontrol interesatuaren posibilitatea beraien eskutan uztea eta hori adierazpen librearen aurka joan daiteke. Erizkera berbera agertu zuen *El País* egunkariko zuzendariak, Juan Luis Cebrián-ek. Karnet ofizialaren esigentzia aurreko erregimenak prentsaren gain izan zuen kontrol-bide bat da. Orain, demokrazian bagaude, ez da posible era berean jarraitzea. Ildo berekoa da atzerriko zenbait hizlariaren eritzia, Estatuak edota profesionalek beraiek, karnetaren bidez edo tituluaren bidez kazetari-lanerako baimena ematearen desegokitasuna azpimarratu bait dute.

Gutziz bat nator neu ere eritzi hauekin. Zentzugabekeria iruditzen zait, prentsan lan egiteko, kazetal tituluaren behar hori, eta ez gutxiago titulu unibertsitarioaren planteoa. Karnetaren esigentzia hori kontrola besterik ez da, Estatuarena bate-tik (lehen eta orain), eta, batez ere gaur egun, kazetari-elkar-teen talde-interesena. Aitortu nahi ez den izen ezagun bat du horrek: korporatibismoa. Horixe.

Enpresen eta sindikatuen beldur da Ansón. Bego. Baina ez diot nik beldur gutxiago Estatuaren interbentzioari eta kazeta-rien Elkartearen korporazio-izpirituari.

Euskal kazetak, 1976an oraingo egitura berri normalizatu hau hartu zutenetik, kazetaritzaren egoeraren biktimia dira. Euskal tituludunen eskasia nabarmena izan da, besteak beste. Egiazko orduan hil-ala-biziko arazo larritik ez sortu izanak ez du adierazten problemarik ez dagoenik egon. Zenbait kazetariren titulu-prestamoak «salbatu» du egoera. Baina hona kontradikzioa:

zuzendari horietako batzuk jakin ere ez dakite euskaraz, eta kasurik onenean, jakinda ere, alegia, ez dute kazetari bezala organo horretan lanik egiten. Sasisoluzioa, beraz. Kasu horretan txede daude, gaur bertan, *Argia*, *Anaitasuna* eta *JAKIN* bera.

Zer egin egoera atipiko honetatik ganoraz irteteko? Bietako bat: tituluaren beharra kendu, edota, bestela, aldizkarietako langile zenbaiti (behar diren kontrol eta garantiekin, noski) karneta eman.

Ni neu, egia esan, IPIren 31. Biltzar honetan nagusitu den kritziaren aldekoa naiz osoki: karnetaren esigentzia kendu. Baina, lurralde autonomiko honetan horraino iristerik ez badugu, besterik ezean, bigarren bide hori proposatuko nuke, hots, euskal kazetaritza tertzioz eramateko behar diren adina karnet eman. Aginteak aintzat hartuko ahal du idarokizun hau! ■ *Joan Mari Torrealdai.*